

Guraso agurgarriak,

Eusko Jaurlaritzak EAEko ikastetxe guztien jarduera presentziala eteteko erabakia hartu du martxoaren 13tik 29ra gutxienez.

Ikasleak ikastolara etorri ezin badira ere, guk lanean jarraitzen dugu.

Ahal den neurrian ikasleek beren ikasketa prozesuarekin jarraitu dezaten eta egunero ikasteko ohiturari eutsi diezaioten, datozen egunetarako aurreikusi dugun antolaketa partekatu nahi dugu zuekin.

Etapa bakoitzeko antolaketa

HH

Adin honetako haurren ezaugarriak eta beraien ikaskuntza prozesuan **jolasak eta esperimentazioak** duen garrantzia kontuan hartuta, umeein egin daitezkeen zenbait ekintza proposatzen dizkizuegu:

- Inguru hurbilean txango txikiak familian egitea,
- Etxeko lanetan parte hartuz laguntzea,
- Esku-lanak egitea,
- Ipuinak kontatzea,
- Elkarriketak sustatzea,
- Mahai jolasetan aritzea,
- ...

LH 1,2,3,4

Irakasleek **paper euskarrian** prestatuko dituzte lan-txostenak egun hauetan zehar ikasleek etxean egin ditzaten. Lan-txosten hauek astelehenean jasotzeko aukera izango duzue Ikastolan bertan, borobilean, 12:00etatik 15:00etara (heldu batek etorri beharko du materialaren bila).

Txostenarekin batera jasoko duzue 15 egun hauetarako lan egutegia eta jarraibideak.



Ergoien, 5
Tel. 943 - 652932/654613
FAX: 943 - 653627
20270 ANOETA (Gipuzkoa)
E-MAIL: anoeta@ikastola.eus

LH 5,6 eta DBH

Ikasleek **euskarri digitalean** jasoko dituzte egun hauetan zehar egin beharreko lanak eta jarraibideak.

Astelehenetik aurrera ikasle bakoitzak bere e-maila bitartez jasoko du aste osoan zehar bete beharko duen lan egutegia eta lan hauek tutorizatzeko edo irakaslearekin zuzenean (on-line) zalantzak argitzeko izango duten ordutegia. Egunero goizeko 09:00etarako zehaztuko zaio egun horretan zehar egin beharreko lana, epeak eta zuzentzeko moduak.

Era berean, egunero, egutegi horretan zehaztutako arloei dagokien drive karpetetan aurkituko ditu egun horretarako zereginak zehaztuta.

OHARRA: ikasleren batek arazoak baldin baditu euskarri digitalekin on-line lan egiteko (ordenadorerik ez, WIFI konexiorik ez,...), jar zaitezte harremanetan tutorearekin.

Egunetik egunera egoera aldatu daitekeenez, **etengabeko komunikazioa** mantenduko dugu zuekin, eguneratuta egote aldera. Horretarako **Alexia kanala** erabiltzen jarraituko dugu.

Horrez gain, arreta telefonikorako ordutegia ondorengoa izango da: 08:00etatik 15:00etara. Ordutegi honetatik kanpo kontsultak e-postaz egitea eskatzen da, helbide honetan anoeta@ikastola.eus.

Denon artean egoera berezi honi aurre egiteko gai izango garelakoan, agur bero bat,

ANOETAKO HERRI IKASTOLAKO ZUZENDARIA. Itziar Lazkano.